

Xabier Letona



DANI BLANCO

Adegik herren dator

BEHIN azaltzen ari nintzaion kazetari bati ARGIA 2012an soldaten %14 murriztu genuela. Edo galera banatu edo langile gutxiago, ez zegoela besterik. “Autoesplotazioa”, luzatu zidan. “Biziraupena”, ihardetsi nik. Adegiren proposamena entzutean, berriktaldi hura oroitu nuen.

Guk oso kontuan hartzen ditugu Adegik azaldutako balore horiek: langilearen parte-hartzea, konfiantza, komunikazioa, gardentasuna, akordioa... Giltzarri dira arrakastatsua edo lehiakorra izan nahi duen edozelako enpresarentzat, helburuak lortzeko ezinbesteko, pertsonaren asebetezterako... Eta indarrean dira enpresa askotan, kapitala nagusi den horretan edo kooperatiboan. Batzuetan ondo, besteetan erdipurdi eta askoz gehiagotan gaizki. Azken hamabost urteetan enpresa eta kudeaketaren esparruan mila eta bat ikastaro eta jardunalditan errepi- katutakoak dira.

Horregatik harrigarri samarra da Adegik orain kontu hau berri gisa plazaratzea; eta akaso izango da berrikuntzarik, baina ez behintzat haien webgunean jarritako bideotan ematen dituzten azalpenetan. Pello Guibelalde Adegiko lehendakariak, bere aurkezpen hitzaldian bota zuen honetan guztian giltzarri den kontzeptu bat: “Emaitzei buruz ere hitz egiteko prest gaude”. Hain hedatua dagoen *management* kultura horretan sarri gertatzen da, aipatutako balore guztiez hitz egiten da, salbo eta irabazien banaketaz, banaketa hori soldatan doala pentsatu ohi baitu nagusiak, izan haren irabaziak dena delakoak. Askok pentsatuko du zergatik Adegik ez ote zuen

halako proposamenik egin adibidez 2003an, aipatzen dituen baloreak orduan ere bolo-bolo ari zirenean kudeaketa munduan.

Bere hitzaldiaren amaieran bota zuen beste klabe nagusietako bat Guibelalde: “Azken helburua zera baita, enplegua, ongizatea eta aberastasun soziala sortzeko edozelako jardueraren oinarri eta motore izaten jarraitu behar dutelagure enpresa eta enpresariak”. Enpresariak garbi aipatzen ditu, langileak, izatekotan, enpresa hitzaren baitan. Eta hor dago azken lan erreforma eta langileen eskubide murrizketen giltzarrietako, akordio ezaren aurrean enpresariari ematen diola erabakitzeke ahalmena.

Adegiren diskurtso hau herren dator orain, lan erreformek boterea bere aldera eraman dutelako

Horregatik Adegiren diskurtso hau herren dator orain, lan erreformek boterea bere aldera eraman dutelako eta, funtsean, azken erabakia enpresariaren esku uzten duelako. Ez da atzo goizekoa lan harremanen gatazka, historian zehar boterekeriaz eta indarrez bideratu ohi izan da, eta hala da gaur egun ere munduko pertsona gehienentzat. Lan harremanen demokratizatzeko maila bat irabazi bazen, sindikatuetan antolatutako langileen presioagatik izan zen nagusiki. Ondoren –komunismoaren mamua akuilu–, langile, enpresari eta estatuak ulertu zuten akordioa inposaketa baino emankorragoa zela denentzat. Hori da Europako lan harremanen azken 60 urteetako historia. Urtetik urtera desegiten ari den

ongizate estatuaren muina. Eta desegiten ari da, funtsean, kapitalismoaren indar nagusiek uste dutelako aberastasunaren klabea enpresariarengan dagoela; langileen aldarrikapenak lehiakortasunaren aurkakoak direla eta, beraz, hauen eskubideak murriztuz –malgusegurtasuna deitzen diote haiek– lehiakortasuna hobetu eta hazkunde ekonomikoa eta aberastasuna handituko direla.

Historia ez da errepikatzen, baina haren irakaspenak klabeak dira, atzera baino aurrera egiteko. Eta Espainian garatu den lan harremanen ereduarekin atzera egin da. Denetatik beharko da krisitik ateratzeko, horietako lehenetarikoa urtero “datorren urtean” krisitik ateratzen hasiko garela diotenak isilaraztea, bereziki agintariak. Baita Adegik aipatzen dituen balore horiek indarrean jartzea, serio eginez gero egoera asko hobetuko dituelako. Koldo Saratxaga eta bere NER (Harreman Estilo Berria) ereduak argi erakusten dute horiek eraginkorrak direla, batez ere boterea, kudeaketa eta irabaziak partekatzen direnean, eta –beste pista bat– hori ekonomia sozialean gertatzen da gehien. Beharko da hitzarmen sozial berria langile, enpresari eta gobernuen artean. Sindikatuek ere egokitu beharko dute hainbatetan, lehiakorra izatea bizirauteko ezinbestekoa baita. Horretan guztian eta gehiagotan asmatu beharko da. Baina hori gertatzen den bitartean, langileei haiek egoki ikusten duten gisan antolatu eta borrokatzeke eskubidea ukatzea ez da ez zilegi, ez errealia. ■

